ADMINISTRAZIO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA HORNIDURA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO

LEKEITIOKO UDALEKO BRIGADAK ERABILIKO DUEN BIGARREN ESKUKO KAMIOI BATEN HORNIKUNTZA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Lekeitioko Udaleko brigadak erabiliko duen bigarren eskuko kamioi baten hornikuntza, bere eskumenak garatzeko beharrezkoa dena.

2. HORNITU BEHARREKO IBILGAILUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

2.1. GUTXIENEKO BALDINTZAK.

Ibilgailuak jarraian aipatzen diren ezaugarri tekniko guztiak bete beharko ditu nahitaez. Baldintza horietakoren bat betetzen ez bada, lizitaziotik kanpo geratuko da.

-2011. urtea edo ondorengo matrikulazioa.
- 230.000 km. baino gehiago ez edukitzea.
- Lorezaintzako karrozaketa
- Kolore zuriko kabina
- Gehienezko pisua: 3.500 kg
-Gutxieneko neurriak dituen kutxa baskulatzaile berria (luzera/zabalera/altuera): 3,30 x 2,10 x 1,2 m. (kutxa berria).
- Gutxienez 10 m-ko altuera bertikala eta gutxienez 7,4 m-ko irismen horizontala duen garabiarekin instalatuta, 300 kg-ko pisuari eutsita (garabia berria).
- IAT indarrean.
- B gidabaimenarekin erabiltzeko.
-Lekeitioko Udalaren logotipoa duten errotulazioak alboko ateetan.
-Atoiaren krokadura gutxienez 2.000 kg-rako.

PLIEGO DE CLAUSULAS TÉCNICAS PARTICULARES DE CONTRATO DE SUMINISTRO POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO

SUMINISTRO DE UN CAMIÓN DE SEGUNDA MANO PARA USO DE LA BRIGADA DEL AYUNTAMIENTO DE LEKEITIO

1. OBJETO DEL CONTRATO

Será objeto del contrato el suministro de un camión de segunda mano para uso de la brigada del Ayuntamiento de Lekeitio necesario para el desarrollo de sus competencias.

2. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL VEHÍCULO SUMINISTRAR.

2.1. REQUISITOS MINIMOS.

El vehículo deberá reunir obligatoriamente todas las características técnicas que se citan a continuación. La falta de alguno de estos requisitos será motivo de exclusión de la licitación.

- Matriculación igual o posterior al año 2011.
- No más de 230.000 kms.
- Carrozado jardinería.
- Cabina color blanco
- Peso máximo 3.500 kg
- Caja basculante nueva con dimensiones mínimas (largo/ancho/alto): 3,30 x 2,10 x 1,2 m. (caja nueva).
- Instalado con grúa con alcance vertical mínimo de 10m de altura y alcance horizontal mínimo de 7,4m soportando 300 kg de peso (grúa nueva).
- ITV en vigor.
- Para utilización con carnet B.
- Rotulaciones en las puertas laterales con el logotipo del Ayuntamiento de Lekeitio.
- Enganche de remolque para mínimo 2.000 kg.

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.eus

2.2. KOTXEAREN HARTZEA ETA BERMEALDIA

Hornidura eman eta gehienez aste bateko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da.

Hartzeko baldintza guztiak betetzen ez baditu hornidurak, esanbidez jasoko da hori, eta akatsak zuzentzeko edo itundutakoaren araberako beste hornikuntza bat egiteko jarraibideak emango zaizkio kontratistari. Zuzendu edo ordezten ez bada, kontratistaren kontura utziko ditu administrazioak; ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Gainera, gutxienez 6 hilabeteko berme- epea egongo da, harrera formaletik hasita zenbatu beharrekoa.

Bermealdiak irauten duen bitartean, administrazioak eskubidea izango du hutsak edo akatsak dituztela hornitutako ondasunak ordeztu diezazkioten, edo konpon diezazkioten, horrekin nahikoa izango balitz.

2.2. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA DEL VEHÍCULO

En el plazo máximo de una semana desde que se efectúe la entrega del suministro, se producirá el acto formal y positivo de recepción de este.

Cuando el suministro no se halle en condiciones de ser recibido, se hará constar expresamente y se darán instrucciones al contratista para que subsane los defectos o proceda a un nuevo suministro de acuerdo con lo pactado. Cuando no se realice la subsanación o sustitución, la Administración dejará el suministro de cuenta del contratista quedando exenta de la obligación de pago o adquiriendo el derecho a recuperar lo pagado.

Asimismo, se establece un plazo mínimo de 6 meses de garantía a contar desde la fecha de recepción formal.

La Administración, durante el plazo de garantía, tendrá derecho a la reposición o reparación, si ello fuera suficiente, de los bienes suministrados que presenten vicios o defectos.

2.3. IBILGAILUA ENTREGATZEKO BALDINTZAK

Ibilgailua matrikulatuta eta eskatutako eta eskainitako ekipamendu guztiarekin entregatuko da Lekeition, administrazio-klausula zehatzen agirian adierazitako egunean, eta nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkeztuko da (zirkulazio-baimena, ibilgailuaren fitxa teknikoa, e.a.).

Bai ibilgailua bai bertan instalatutako ekipamendu gehigarria behar bezala legeztatuta eta homologatuta egongo dira, eta ibilgailuaren dokumentazioan jasoko dira.

Ibilgailua eta haren osagaiak eta ekipamendua matrikulatzeko unean indarrean dagoen araudiari egokituko zaizkio.

Ibilgailuaren legezko dokumentazioaz gain, honako hauek entregatu beharko dira: ibilgailuaren fabrikatzailearen informazio-eskuliburua, jarraibideen eskuliburua, ibilgailuaren entretenimendu-liburua, prebentziozko mantentze-lanen planarekin, bermea eta ibilgailua emateko tailerren sarea.

2.3. CONDICIONES DE ENTREGA DEL VEHÍCULO

El vehículo se entregara ya matriculado y con todo su equipamiento exigido y ofertado en Lekeitio en la fecha indicada en el pliego de cláusulas administrativas particulares y se acompañara de la documentación obligatoria (permiso de circulación, ficha técnica del vehículo, etc.).

Tanto el vehículo como el equipamiento adicional instalado en el mismo se encontrarán correctamente legalizados y homologados, reflejándose en la documentación del vehículo.

El vehículo y sus componentes y equipamiento se ajustarán a la normativa correspondiente y en vigor en el momento de su matriculación.

Además de la documentación legal del vehículo se deberá entregar: manual informativo del fabricante del vehículo, manual de instrucciones, libro de entretenimiento del vehículo con su plan de mantenimiento preventivo, garantía y red de talleres para la prestación del mismo.

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.eus